

AGUR BITTOR BENETAKO TXAPELDUNA!

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Amatermingo seme argiak
ehun urte betetzen ditu,
ez da erreza papertxo baten
batzea hainbat meritu.
Beti burua argi
bihotza zuzen, garbi,
ezin inoiz errenditu.
Txapel ederra daroa baina
dana ezin da kabidu.

2

Haziz ta heziz doa mutila
urduri ta ameslari,
nunbaiten norbait izango dala
bebingoan jako nabari.
"Ni naz baserritarra,
ez da titulu txarra"...
opa bere buruari.
Bere amesa argituz doa:
abade misiolari.

3

Baserri mutil, gazte prestua,
soldadutza probaturik,
bonbonkeria dagon lekuan
ezin dau hartu gusturik.
Begira egon gabe
sartzen jaku abade,
Jesusen deiaz pozturik:
"Pobreen alde jokatuko dot
nahizta ez euki dirurik".

4

Dana itzita hor doa Bittor
pozik Seminariora,
barruko deia zintzo jarraituz
Jesus Jaunaren arlora.
"Behartsuen mirabe,
euren alde jo ta ke,
banoa euren ondora".
Aukera danak baztar itzita,
Los Rios-ko misiora.

5

Bittor ez dago geldi ta geldo,
jo ta ke ekin ahalean,
uste baino lehen gotzain kargua
ezarri deutse gainean.
Bittorrek badau gaia
baita "ardi usaia",
baiezkoa azkenean:
"Hartzen dot baina jokatzekotan
guztiok alkarlanean".

6

Bittor pobreen alde bizi da
lanean asper ezina,
goiko ta beheko astintzen ditu
zelan lortu etekina.
Ekin zizti ta sasta,
laster ostiko plasta...
"Hau komunista jakiña!"
Laster zabaldu zan bere kontra
sekulako zipriztina.

7

Lehenengo euskal zortzi abade
Los Rios-era joanak,
Bittorrek laster zuzendu ditu
gehienbat misio lanak.
Inok kendu orduko
berak egin dau uko,
ta hor konpon zer esanak...
Txapel baltzagaz truk egiten dau
txanogorridun izanak.

8

Hogeitamalau urte ondoren
barriz Anboto aldera,
txapel ta guzti Urkiolara
misiolari taldera.
Bittorrek gurago dau
gotzain baino sakristau,
Urkiolan dau aukera;
San Antonio Zahar ta Gaztea
hor txalo joka batera.

9

Batean hartu, bestean emon,
muslari amorratua,
kontu kontari zoragarria
ta beti prest ostatua.
Batean perretxiko
bestean pronostiko,
Marigaz ei dau tratua...
Danen gaineratik eskeintzen deusku
bakearen ostarkua.

10

Gotzain baino lehen, fede-gizona
gizalege dan moduan,
biak batera da gure Bittor
beragan ta inguruan.
Fedea ta zentzuna
gainera euskalduna,
eta txapela buruan;
goitik beherako gizon bat dago
Bittor dagoan lekuan!.

